



L A B U R P E N A

Euskal Autonomia Erkidegoko
Hondakin Ez Arriskutsuen
inbentarioa

2 0 0 5



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Euskal Autonomia Erkidegoko

Hondakin Ez Arriskutsuen

inbentarioa

l a b u r p e n a

HASIERAKO OHARRA

Inbentario honetako tauletako eragiketetan (baturak eta ehunekoak) egon litezkeen akats aritmetikoak erabaki baten ondorio dira; izan ere, batugaietako hamartar guztiak batu baititugu, batzuetan hamartar guztiak ikusi ez arren.

Horrela, eragiketaren emaitza, biribildu arren, ez da murriztuko.

1. HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN SORKUNTZA

2005ean 3.400.711 tona hondakin ez-arriskutsu sortu ziren guztira; hots, 2004an inbentariatutakoak (3.642.916 tona) baino zerbait gutxiago. Hondakin gehien sortu zituzten jarduerak honako hauek dira: burdinaren eta altzairuaren sektoreak, metalezko produktuen fabrikatzaileak –gaika biltzen diren zatikiak; txatarra, batik bat– eta zura zerratzen, marruskatzen eta industrialki prestatzen dutenak.

1. taula. 2005ean sortutako hondakin ez-arriskutsuen korrante nagusiak, EHZren lau digituko sailkapenaren arabera. Datuak: t/urte

EHZ	Deskribapena	Kopurua
1002	Burdinaren eta altzairuaren industriako hondakinak	1.153.987
0301	Egurra eraldatzean eta taulak zein altzariak ekoiztean sortutako hondakinak	607.758
2001	Gaika jasotako frakzioak (15 01 azpikapituluan zehaztutakoak salbu)	379.993
0303	Paper-orea, papera eta kartoia ekoiztean zein eraldatzean sortutako hondakinak	333.930
1009	Burdinazko piezak galdatzean sortutako hondakinak	240.828
1908	Hondakin-urak tratatzeko instalazioetako hondakinak	132.508
2003	Udalerrietako beste hondakin batzuk	124.481
1910	Metalak dituzten hondakinak zatitzean sortutako hondakinak	111.107
1501	Ontziak (udalerrietako gaikako bilketetako ontzien hondakinak barne)	57.403
1611	Labeen estalduren eta erregogorren hondakinak	49.455
GUZTIRA		2.858.783

2. HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN KUDEAKETA


2005ean, 2.022.529 tona hondakin ez-arriskutsu birziklatu ziren EAEn; hau da, sortutako guztiaren % 59,47. Aurreko urtean (2004), aldiz, sortutakoaren % 62,31 birziklatu zen. Zabortegira, berriz, 1.300.468 tona bota ziren (% 38,24), eta 2004an % 35,43. Gainera, 77.715 tona balioztatu ziren energetikoki; hau da, sortutako guztiaren % 2,29. Aurreko urtean, 2004an, antzeko kopurua lortu zen: % 2,26.

2. taulak erakusten duen bezala, 2005ean gora egin du deuseztatu eta energetikoki balioztatzen den hondakin kopuruak, 2004arekin alderatuta. Birziklatzera bidalitako kopuruak, berriz, behera egin du. Halaber, hondakin ez-arriskutsuen kopurua jaitsi egin da 2004tik 2005era; horrek adierazten du EAEko enpresek aurrera egin dutela hondakinak sortzeko prebentzio lanetan.

2. taula. EAEn 2004an eta 2005ean sortutako hondakin ez-arriskutsuak, EHZren eta kudeaketa motaren arabera. Datuak: t/urte

EHZ (bi digitu)	Deuseztatuta		Birziklatuta		Energetikoki balioztatuta		GUZTIRA	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
03: Zurgintza eta papergintza	98.587	109.606	851.944	832.082			950.531	941.688
04: Larrugintza eta ehungintza	3.073	1.320	2.583	1.043	2		5.657	2.363
05: Petrolio fitzea		3						3
06: Kimika inorganikoaren industria	1.282	1.006					1.282	1.006
07: Kimika organikoaren industria	3.621	7.679	6	3.098			3.627	10.777
08: Pinturak, bernizak eta tintak	55	88	23	524			78	612
09: Argazkigintza industriako hondakinak	333	14		1			333	15
10: Prozesu termikoen industria	720.157	736.098	860.567	698.248			1.580.723	1.434.345
11: Metalen tratamendua eta estaldura	156	8.969	4.798	4.268			4.954	13.238
12: Metalak mekanizatze industria	41.810	30.390	50.195	13.898			92.005	44.289
15: Ontziak eta trapeuak	36.765	4.634	58.966	33.736			95.755	38.371
16: Beste hondakin batzuk	64.160	82.464	83.185	57.404	8.499	12.808	155.844	152.676
19: Hondakinak tratatzeko industria	204.875	178.888	10.099	12.861	73.728	64.907	288.701	256.656
20: Hiri hondakinak eta asimilagarriak	115.863	139.307	347.562	365.366			463.425	504.673
GUZTIRA	1.290.736	1.300.468	2.269.926	2.022.529	82.229	77.715	3.642.916	3.400.711
KUDEATUTAKO %	% 35,43	% 38,24	% 62,31	% 59,47	% 2,26	% 2,29	% 100	% 100

1. irudia. EAEn 2005ean sortutako hondakin ez-arriskutsuak, kudeaketa motaren arabera. Datuak: t/urte



Inbentariatutako hondakin korrante batzuek tratamendu mota jakin bat izaten dute gehienetan. Esate baterako:

- Zura eraldatzen eta taulak zein altzariak ekoizten sortzen diren hondakinak (EHZ 03 01) eta, are zehazkiago, zerrauts, txirbil, ebakidura, zur zati, partikula-taulen eta egurrezko txapen hondakinak (EHZ 03 01 05), eta zuhaitz-azal zein kortxo hondakinak (EHZ 03 01 01) % 100 birziklatzen dira. Era berean, burdina duten metalak ere birziklatu egiten dira gehienetan (EHZ 12 01 02).
- Nahasketa industrial (EHZ 20 03 01) gehientsuenak zabortegietan deuseztatzen dituzte (% 93,35). Era berean, galdaldiko arren eta moldeen hondakinak (10 09 08) % 88,14 doaz zabortegira, eta fragmentazio zati arinak, berriz, (fluff-light, EHZ 191004) % 100.
- Balioztapen energetikoari dagokionez, jada erabiltzen ez diren pneumatikoen kasuan aplikatzen da gehienbat (EHZ 16 01 03), kasuen % 65,64an, eta araztegietako lohietan (EHZ 19 08 05) % 42,52.


3. JARDUERA EKONOMIKOEN SAILKAPEN NAZIONALAREN (JESN) ARABERAKO AZTERKETA

Urtean hondakin ez-arriskutsu gehien sortzen dituzten sektore industrialak honako taula honetan ageri direnak dira. Guztiek batera EAEko industriak sorturiko hondakin ez-arriskutsuen guztizkoaren % 88,24 osatzen dute.

3. taula. Hondakin ez-arriskutsu gehien sortzen duten sektoreak. Datuak: t/urte

JESN	Jarduera sektorea	Sorturiko kantitatea	EAEko guztizkoaren gaineko ehunekoa	Metatutako ehunekoa
271	Burdinazko, altzairuzko eta burdin aleazioko oinarritzko produktuak fabrikatzea (CECA)	1.154.107	% 33,94	% 33,94
201	Zura zerratzea eta arrabotatzea; egurraren prestaketa industrial	607.672	% 17,87	% 51,81
275	Metalak galdatzea	333.643	% 9,81	% 61,62
212	Paperezko eta kartoizko artikulua fabrikatzea	191.857	% 5,64	% 67,26
211	Papera egiteko pasta, papera eta kartoia fabrikatzea	155.562	% 4,57	% 71,83
400	Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta ur beroa ekoiztea eta banatzea	154.378	% 4,54	% 76,37
410	Ura kaptatzea, araztea eta banatzea	122.749	% 3,61	% 79,98
371	Txatarra eta metalezko hondakinak birziklatzea	114.141	% 3,36	% 83,34
284	Metalen forja, estanpazioa eta enbutizioa; hautsen metalurgia	84.180	% 2,48	% 85,82
266	Hormigoi, igeltsu eta zementuzko elementuak egitea	82.374	% 2,42	% 88,24
272	Tutuak fabrikatzea	62.659	% 1,84	% 90,08

2. irudia. Hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza sektore nagusietan, 2005ean. Datuak: t/urte



4. HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA


Hondakin ez-arriskutsu gehien sortzen dituen lurraldea Bizkaia da (1.536.051 tona; hots, guztizkoaren % 45,17). Gipuzkoa dator ondoren (1.230.780 tona; hots, guztizkoaren % 36,19). Gipuzkoan Bizkaian baino altzairu fabrika gehiago dagoenez, zepa gehiago sortzen da; horregatik, lurralde horretako hondakin ez-arriskutsuen kopurua asko hurbiltzen zaio Bizkaikoari. Arabari dagokionez, 633.351 tona sortu ditu (guztizkoaren % 18,62). Kantitate hori, EAerekin alderatuta duen biztanleria banaketari legokiokeena baino handiagoa da. Horren arrazoia da egurra eraldatzeko jarduerak garrantzi handia duela Araban.

Kasu guztietan, ugariak dira oso hondakin siderometalurgikoak (EHZ 10); batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian. Araban, aipagarria da zura eraldatzeko industria ere, 4. taulan eta 3. irudian ikusten den bezala.


4. taula. EAEn 2004an eta 2005ean sortutako hondakin ez-arriskutsuak, EHZren eta jatorriko Lurralde Historikoaren arabera. Datuak: t/urte

EHZ (bi digitu)	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
03: Zurgintza eta papergintza	306.898	304.331	361.723	489.054	281.910	148.303	950.531	941.688
04: Larrugintza eta ehungintza	1.242		741	749	3.675	1.613	5.657	2.363
05: Petrolio finketaren hondakinak				3				3
06: Kimika inorganikoaren industria	1.052	849	22	5	208	153	1.282	1.006
07: Kimika organikoaren industria	389	349	1.489	8.962	1.748	1.466	3.627	10.777
08: Pinturak, bernizak eta tintak	15	207	12	283	52	122	78	612
09: Argazkigintza industriako hondakinak		1	333	14			333	15
10: Prozesu termikoen industria	135.760	147.672	655.393	519.055	789.571	767.090	1.580.723	1.434.345
11: Metalen tratamendua eta estaldura	4.312	1.634	296	11.334	346	270	4.954	13.238
12: Metalak mekanizatzeko industria	22.043	5.270	32.067	16.968	37.895	22.051	92.005	44.289
15: Ontziak eta trapuak	8.108	7.747	25.884	19.183	61.763	11.441	95.755	38.371
16: Beste hondakin batzuk	49.654	10.362	80.159	85.395	26.030	56.920	155.844	152.676
19: Hondakinak tratatzeko industria	126.831	113.860	127.178	126.260	34.692	16.536	288.701	256.656
20: Hiri hondakinak eta asimilagarriak	87.513	41.070	128.990	258.788	246.922	204.815	463.425	504.673
GUZTIRA	743.816	633.351	1.414.287	1.536.051	1.484.813	1.230.781	3.642.916	3.400.711
%, EAeko guztizkoarekin alderatuta	% 20,42	% 18,62	% 38,82	% 45,17	% 40,76	% 36,19	% 100	% 100

2. irudia. 2005ean sortutako hondakin ez-arriskutsuak, EHZren eta jatorrizko Lurralde Historikoaren arabera. Datuak: t/urte



3. irudia. Hondakin ez-arriskutsuen kudeaketa 2005ean, Lurralde Historikoaren arabera. Datuak: t/urte



Bizkaian eta Araban handiak dira birziklatzeari dagozkion zifrak: 1.030.344 eta 462.479 tona hurrenez hurren (% 67,08 eta % 73,02). Zurgintzaren sektorean hondakin ugari daudelako gertatzen da hori. Sektore horretan, % 90 baino gehiago birziklatzen da. Era berean, altzairugintzako hondakin asko eta asko ere birziklatu egiten dira. Gipuzkoan, ordea, zurgintzak garrantzi txikiagoa du; horregatik, birziklatutako hondakinen proportzioa % 43,04koa da.